

**KONTSULTA PUBLIKOA: 18 ETA 35
URTE BITARTEKO GAZTEENTZAKO
ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO
LAGUNTZAK EMATEKO
ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN
ELABORAZIO PROZESUAN**

**CONSULTA PÚBLICA EN EL
PROCEDIMIENTO PARA LA
ELABORACIÓN DE LA ORDENANZA
REGULADORA SOBRE LA
CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL
ALQUILER DE VIVIENDAS PARA
JOVENES DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS**

Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133. artikuluan ezartzen duenez, erregelamendu proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu behar da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, etorkizuneko arauak ukitu ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek euren ekarpenak egin ditzaten. **Hori horrela, 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko ordenantza arautzailearen elaborazio prozesuan, kontsulta publiko hau egiten da.**


De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración de los proyectos de reglamentos, debe substanciarse una consulta pública digital para recabar la opinión de los sujetos y de las asociaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma, por lo que en su cumplimiento, se lleva a cabo la consulta previa en el **procedimiento para la elaboración de la Ordenanza reguladora sobre la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes de entre 18 y 35 años.**

Modu honetan, eta arauzko proiektua egin aurretik, ukituak izan daitezkeen herritarrei eta antolakunderik ordezkagarrienei dei egiten zaie, etorkizuneko arau honen gain euren ekarpenak egin ditzaten.

De este modo, y antes de la elaboración del proyecto normativo, se invita a la ciudadanía y a las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma a expresar sus opiniones y hacer aportaciones sobre la necesidad de esta norma.

Ekarpenak, alegazioak edota iradokizunak egin daitezke iragarkia udalaren web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean. Hau da, 2021ko azaroaren 25etik 2021ko abenduaren 10era arte, biak barne.

Pueden hacerse aportaciones, alegaciones y/o sugerencias, durante un plazo de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente al de publicación del anuncio en la página web municipal. Es decir, desde el 25 de noviembre de 2021 hasta el 10 de diciembre de 2021, ambos incluidos.



Hori horrela, ekarpenak hurrengo helbide elektronikoan egin daitezke: [idazkaritza@ordizia.eus](mailto: idazkaritza@ordizia.eus).

A tal efecto podrán remitirse las contribuciones a la siguiente dirección de correo electrónico: [idazkaritza@ordizia.eus](mailto: idazkaritza@ordizia.eus).

Jarraian, arauketa honekin konpondu nahi diren arazoak, berau onartzeko beharra eta egokitasuna, nahiz helburuak zein diren zehaztuko dira.

A continuación se describen los problemas que se pretender resolver con esta regulación, las razones de la necesidad y oportunidad de su aprobación así como los objetivos que persigue.

ONARTZEAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA


NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN

Printzipio estrategikoa da, Ordiziako herritarren ongizaterako duen garrantziagatik, gure gazteak emantzipatu ahal izatea eta gizarte honetan beren ibilbideari ekin ahal izatea. Gazteek emantzipatzeko alokairua aukeratzen dute gehien. Etxebizitza oso bat erosteko edo alokatzeko ezintasunaren aurrean, gero eta gazte gehiagok partekatzen dute alokairuko etxebizitza (alokairua bakarrik eskuratzen duen pertsona batek, batez beste, soldataren % 50 baino gehiago bideratu beharko luke, eta etxebizitza partekatzen duten pertsonak, berriz, soldataren % 20 inguru). Datu horiek gure udalerriko gazte-politikan emantzipazioak eta etxebizitza eskuratzeko duten garrantzia justifikatzen dute.

Es principio estratégico, por su importancia para el bienestar de la ciudadanía de Ordizia, que nuestros jóvenes puedan emanciparse e iniciar su propia andadura en esta sociedad. La opción más elegida por la juventud para emanciparse es el alquiler. Como novedad se observa que ante la imposibilidad de comprar o alquilar una vivienda entera, son cada vez más las personas jóvenes que comparten vivienda de alquiler (una persona que accede al alquiler en solitario, de media debería destinar más del 50% de su salario, mientras que las personas que comparten vivienda destinan cerca del 20% de su salario). Estos datos justifican la importancia que la emancipación y el acceso a la vivienda tienen en las políticas de juventud en nuestro municipio

2018-2019 urtean gazte plana egiten hasi zen Ordiziako Udaletxea. Parte hartzeko prozesuan, gazteek emantzipatzeko

El año 2018-2019 se inició la elaboración del plan de juventud, en su proceso participativo se detectó una



Ordiziako Udala

2021SORD0006

duten borondatearen eskari handia antzeman zen eta abentura hori hastean sortzen zitzaizkien zailtasunak aipatu ziren. Batetik, alokairuko etxebizitza gutxi izateak eta bestetik errentak garestiak izateak. Horiei aurre egiteko helburuarekin alokairurako laguntzen aldeko apustua eta inbertsioa eskatzen zioten udal-erakundeari.

demanda importante de la juventud al respecto de la voluntad de los jóvenes de emanciparse y de las dificultades que les sobrevenían cuando iniciaban dicha aventura. Para afrontar la escasez de vivienda en alquiler y la carestía de las rentas, reclamaban de la institución municipal la apuesta e inversión en ayudas al alquiler con dicho objetivo.

Programa honetarako aurrekontu-zuzkidura hutsik dauden etxebizitzengatik OHZren errekarigutik urtero lortzen diren diru-sarrerek osatzen dute. Ordenantza fiskalean helburu hori artikulatuta dago

La dotación presupuestaria para este programa viene surtida por los ingresos que anualmente se obtienen del recargo al IBI por vivienda vacía. En la Ordenanza fiscal está articulado dicho destino finalístico.

KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK ETA HELBURUA:

Ordenantza honen helburua honako hau da: gazteei emantzipazio-prozesuan eta helduen munduan sartzeko prozesuan laguntzea eta gazteen artean (30 urtekoak edo beherakoak) alokairu-erregimeneko etxebizitza bat lortzea sustatzea, eta emantzipazioaren bidez emakumeen eta gizonen arteko aukeraberdintasuna bultzatzea.

PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR Y OBJETIVO DE LA NORMA:

La finalidad de esta Ordenanza viene determinada por la voluntad inequívoca de apoyar a la juventud en su proceso de emancipación e incorporación al mundo adulto y promover, entre la población joven (menor o igual a 30 años), el acceso a una vivienda en régimen de alquiler e impulsar la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres a través de la emancipación.

Hori guztia etxebizitza duina izateko eskubidea, eskubide unibertsal eta subjektibo gisa onartzetik abiatuta.

Todo ello partiendo del reconocimiento del Derecho a una vivienda digna, como derecho universal y subjetivo.